



Kalera begira bizi gara

**Errenta
aitorpena**

Euskaraz



ERRENTA AITORPENA, aukeran, EUSKARAZ!

**Aurten bai Eibarren
1.500 euskaraz!**

**Aurten denbora daukagu
hizkuntzari ere
erreparatzeko!**

Ongumarekin
euskaraz



Ez da historiako lehen pandemia

1348an, “Izotz Aro Txikia” deitu zen sasoian, klima hotza nagusi zela (uzta kaxkar eta euri askorekin), **izurrite beltza** Asiatik mundu guztira zabaldu zen. Veneziako itsasontziek zabaldu zuten Konstantinoplan eta, Italiatik kanpo, baita Frantziara, Aragoi eta Gaztelara, beste batzuen artean. Karraskarien eta eltxoen bidez gaixotutakoek elkarren artean hasi ziren kutsatzen. Oraingo hau baino geldoago joan zen hedatzen, bakterio batek sortutakoa zen-eta. 1349an Erresuma Batura heldu zen eta 1350ean Herbeheretara eta Suediara. Hura izan zen munduan izan den izurriterik handiena. Europak 75 milioi biztanle zituen, eta hildakoen kopurua 25 eta 33 milioi arteko tartera iritsi zen.

Izurrite epidemia horiek periodikoki joan ziren errepikatzen XV. eta XVI. mendeetan zehar, sortu eta desagertu egiten ziren. 1720an Europatik desagertu arte, ondo jakin barik zergatik. Behin XVII. mendean, **nafarreriak** hildako asko laga zituen: mila biztanleko 150 hildako eragin zituen, guztiak umeak (oraingoaren guztiz aurkakoa, beraz). 1781ean izan zen epidemia bat gure inguruan ehorzketak eliza barruetan egitera behartu zuena. Frantziako Iraultzaren ondoren eta XIX. mendearen hasierarekin, gerra askoko sasoiak izan zen, Lehenengo Karlistadara heldu arte. Soldaduek askotan zorrek transmititzen zuten mikroorganismoak eramaten zuten batetik bestera, “**sukar us-teldua**” deitzen zuten gaixotasunarekin. Pasaiaiko portutik asko zabaldu zen. 1830. hamarkadan Indiako gaitz endemikoa, **kolera**, zabaldu zen hainbat tokitan. Errusiatik etorri zen gurera eta epidemia handiak eragingo zituen, batez ere 1870. hamarkadara arte. Mende guztia hartuko duen kolera hiriak aldatuko zituen eta higie neurriak hartzera bultzatu zuen jendea. 1889an **errusiar gripea** hedatu zen -kasu horretan ere seguruenik Txinan sortua, eta gero Errusiara zabaldua-, tren bidez Europa osora zabalduko zena. Bere hilkortasun-tasa bikoia zen mila biztanleko. **Sukar horia** ere ordukoa da eta, Brasilen puri-purian zegoenean, hainbat euskal pilotari hil zituen. Itsasontzi estatubatuar batek sartu zuen Rion eta 1907an desagertu zen.




1918an **espainiar gripea** izenarekin ospea hartu zuen gaitza zabaldu zen. Urte horretako martxo eta apirilaren bueltan, estatubatuarren eta europarren kanpalekuetan zeuden soldadu gutxi batzuetan piztu zen. Baina maiztzean orduan 600.000 biztanle zituen Madrilen agertu zen, koarteletan hasieran, gero heritarreengana zabaltzeko. Egunero 40 lagun hiltzen baziren, pare bat astetan kopuru hori 120ra igo zen, gero beste bi astetan 50 edo 60ra jaisteko. Udaberri hartako epidemia hura ez zen Gipuzkoara eta Nafarroara heldu, baina izan zen kasu bat edo beste Bilbon eta Gasteizen. Orduko arazoa izan zen mutazio bat izan zuela eta birulentoa bihurtu zela oso, eta H1N1 hori irailetik aurrera mundu osora zabaldu zen, bi hilabetetan 40 milioi lagun hiltzeraino. Gainera, Asian, Amerikan eta European zabaldu zen aldi berean, nahiko arraroa sasoi hartarako (abioirik ez zegoen). Madrilen, bestalde, aurretik erasotua izan zenez, biztanlegoaren erdiak defentsak sortuak zituen eta gripe horretako bigarren etapak ez zituen hainbeste hildako eragin: bakarrik 13,5 mila biztanleko. Iparraldeko probintzietan hildako gehiago izan ziren: 20 mila biztanleko. Eta Hego Euskal Herrian, 12 mila biztanleko. Hildakoen erdiak 15 eta 35 urteren tartekoak ziren. Munduko batzbestekoa mila biztanleko 25 hildakoena izan zen; guztira, beraz, 40-50 milioi hildako eragin zuen gaitz horrek.

Behin XX. mendean sartuta, 1957an **gripe asiarrak** milioi bat lagun inguru hil zituen, urteroko gripeak 300.000tik 500.000era hiltzen duen bitartean. Azken urteotan izan dira beste hainbat: **hegaztiena** 1997an izan zen lehenengo abisuetako bat. Gero heldu zen **SARS**, 2002 eta 2003an, koronabirusa sortzen duenaren bikia. Hura ere Txinan sortu zen eta 8.000 laguni eragin zien, 700 hildako lagatzeko. Etorri zen moduan joan zen. 2015ean **MERS** sortu zen Erdi Ekialdean: gutxiagoei eragin zien, baina heriotz-tasa handiagoarekin. Eta atzetik etorri ziren **zika**, **A gripea** eta **ebola**.




Pandemia handi gehienak Ekialdetik etorri izan dira, batez ere Asiako erdialdetik eta, zehazki, Txinatik. Afrikatik ere zabaldu izan dira, baina hori azken aldiko gauza da.

Koronabirusa, gripea baino LARRIAGOA



Gripeak azkeneko bospasei hilabeteetan hil dituen gaixoen doblea baino gehiago hil ditu koronabirusak hiru aste eta erdian. Bi gaitzak konparatzea ez da ariketa erraza oraindik; baina, hala ere, nabarmena da bortitzagoa izaten ari dela koronabirusa. Gripearen denboraldia hasi zenetik, 2019ko urri-azaroetatik, 1.750 bat lagun ospitaleratu dituzte Hego Euskal Herrian gripearengatik, hau da, bospasei hilabeteetan, guztira. Martxoaren 23an, 1.344 gaixo zeuden koronabirusagatik ospitalean, hau da, hilabeteko epean, koronabirusak ospitaleetara eraman zituen gripeak bezainbeste gaixo ia-ia.

Eritetzeetan sortzen ari den kargaren erakuske da beste datu hau ere: gripegatik ospitaleratuak nekez izaten dira 150 baino gehiago aldi berean, Hegoaldean; ba martxoaren 23an 1.344 gaixo zeuden koronabirusagatik ospitaleratu. Horrek esan nahi du gripea goreneko puntura iristen denean baino bederatzi aldiz lagun gehiago zeudela orduan bertan erietxeetan. Eta hori da, hain justu, agintarien eta herritarren kezka: osasun-sistema prestatuta ote dagoen koronabirusak kolpetik ekar ditzakeen eri kopuruak hartzeko Gripegatik, bestalde, 62 pertsona hil dira Hego Euskal Herrian azkeneko bospasei hilabeteetan; koronabirusak hilabete bakarrean hil ditu doblea baino gehiago: 144 lagun Hego Euskal Herrian. Hori bai, gripeak egiaz hildakoen kalkulua aurrerago egiten da: 62 horiek halako bost izan litezke azkeneko kontaktetan.



“Eibar bezalakorik ez dago” zioen Mari Carmen Perez Sarasketak

Martxoaren 22an hil zen Madrilgo Sofia Printzesa Ospitalean. Covid-19ak harrapatu zuen, bes-telako min batzuetatik errekupe-ratu eta, altarekin, etxera bidali behar zutenean. Mari Carmen Perez Sarasketa 1933ko azaroa-ren 18an jaio zen Eibarren eta 30 urterekin joan zen Madrilera bizi-tzera, Jose Sanchez Sandin se-narrarekin eta Mari Carmen eta Rocio alaba nagusienekin. Es-painiako hiriburuan jaioko ziren geroago Jose Damian, Ramon eta Jabier. Senarrak Lambrettan



egiten zuen beharra eta eskaini zioten lan berriak eraman zituen Madrilera. Mari Carmen aurretik **aitzindaria izan zen lokutore lanean Eibarren**, or-duko Radio Juventud emisoran, 1953tik 1957ra arte, "EFJ 42 de la Cadena Azul del Frente de Juventudes" deitzen zen hartan. Ezkondu-takoan laga ba-zuen ere, berriro itzuli zen lokutore lanera Bidebarrieta kaleko lokal horre-tara, 1959tik 1961era. Mireia Alonso bere alababesoetakoak gogoratzen duenez, *"Madrilen sukaldaria izan zen Colegio Dulce Nombre de Jesus ikas-tetxean; argi dago gure familiakoen patua dela, amama Candelariatik hasi eta gaur arte lapikoen artean mugitzea"*. Hiriburuko euskal etxeekin ere ha-rreman estua izan zuen Perez Sarasketak. Etxeko guztiek (zortzi biloba eta sei birbiloba tartean) ondo gogoan dute Eibar zelan maitatzen zuen: "Eibar bezalakorik ez dago", "Eibarren askoz hobeto egiten ziren gauzak"... gure herria barru-barruan eraman du azken unera arte. Mireia eta bere ama ur-tero joan izan dira Mari Carmen bisitatzera; aurten ezin izan dute, baina san-blasak bidali zizkioten, dozenaka, *"familiakoen eta parrokiakoen artean banatzeko"*. Familiakoak larrituta egon dira azken egunotan haren gorpua zelan berreskuratu arduratuta. Azkenean, eguaztenean, hilaren 1ean Veli-lla de San Antonion, bere errain baten herrixkan, lurperatu ahal izan dute, apaiza eta bost lagun aurrean zirela. Hala ere, *"esan didatenez, ekitaldi po-lita izan da, txorien kantuek lagundutakoa"*, dio Mireiak.



Perez Sarasketa anai-arrebak.

MADDI IZQUIERDO, EIBARTARRA PERUN HARRAPATUTA EUSKAL HERRIRA ITZULI EZINIK:

“Mila lagun baino gehiago gaude Perutik irten ezinda”

– Eibartik atera zinetenean, zein egoratan zegoen koronabirusaren kontua?

Otsailaren 25ean hasi genuen Limarako bidaia. Data horretan koronabirus-kasu gutxi batzuk baino ez zeuden han-hemenka, eta, Perun, bakarra. Martxoaren hasieran hasi zen egoera larritzen. Guri, esaterako, ez ziguten inolako trabarik jarri inongo aeroportutan, ezta Madrilekoan ere.

– Noiz konturatu zineten egoera korapilatzen ari zela?

Atacamako basamortutik zehar lau eguneko ibilaldia egin genuen, eta han ez geneukan ez wifirik, ezta koberturarik ere. Konektatzeko aukera izan genuenean, herrialdean alarma-egoera ezarrita zegoela jakin genuen eta oso azkar ari zela dena larritzen. Orduan konturatu ginen okerrena etortzeko zegoela.

– Zein urrats jarraitu dituzue? Zein zailtasunekin egin duzue topo etxera bueltatzeko?

Lehenik eta behin, kontratatuta genuen airelineara deitu genuen, itzulera-data aurreratzeko edo, Limatik irten ordez, Santiagotik (Txile) irtetzeko. Ezetz esan ziguten, pazientziaz itxaroteko, eta hegaldia bertan behera geratuz gero, beste hegaldi batean sartuko gintuztela. Gure helburua Europa iristea zen, berdin zitzaigun Parisera, Madrilerara edo Lisboara; beraz, sekulako dirutza (4.300€) ordaindutako hegaldi-txartelak erosi genituen, oraindik mugak itxi gabe zeuzkaten herrialde batzuetara joateko, esaterako, Paraguay, Panama, Mexiko edo Kolonbia, handik Espainiara joan ahal izateko. Pentsa, Limatik Rio Janeirorako hegaldiaren prezioa 7.500 eurokoa zen! Gainera, euren ahalmenetik gainera, gure erleku- eta hegaldimentsalmenta ari ziren egiten. Aireportuko langileek, nahiz eta jakin hegaldi horiek ez zirela irtengo, txartelak erostea gomendatzen ziguten. Saldu bai, baina lau hegazkin besterik ez ziren atera, eta horietako bi nazionalak, gainera. Beraz, diru mordoa gastatu dugu hemendik irten nahian, baina ez du ezertarako balio izan.

– Zein egoeratan zaudete orain?

Egun osoa baino gehiago eman genuen aeroportuan irtenbideren bat topatu nahian, baina ezinezkoa zela ikusi genuenean, Liman apartamentu baten bila hasi ginen. Horietako batean gaude orain, urrea balitz ordainduta. Izan ere, Espainiako



egoera ezagututa, inork ez dio Espainiako jende-ari etxea alokatu nahi.

– Lerro hauek baliatu nahiko zenituzkete Euskal Herrira mezuren bat bidaltzeko, hemendik laguntza jasotzeko?

Entzun diezagutela baino ez dugu eskatu nahi. Mila lagun baino gehiago gaude Perutik irten ezinda, ez daukagu enbaxadaren berririk, eta, gainera, hain egoera latza izanik ere, egunean hiru orduz bakarrik egiten dute lan. Harremanetarako hiru telefono-zenbaki jarri dituzte, baina ez dute erantzuten. Korreoak bidaltzen ditut eta erantzun automatikoa besterik ez dut jasotzen. Eusko Jaur-laritzarekin ere harremanetan jarri nintzen, baina oraindik ez dakigu ezer. Gure helburu bakarra da jakitea nola antolatuko garen aberriratzeko: nork izango duen lehentasuna, zenbat denbora gehiago itxaron beharko dugun kasu egin diezaguten... Guk berrogeialdia beteko dugu; gure helburua ez da etxera lehenago bueltatzea, baizik eta etxetik hain urruti egonda, informazioa jasotzea eta egoera latz hau gainditzeko lagundu diezagutela.


KEZKA ETA ZALANTZA EGOERA HERRIKO DENDETAN

Lore bariko udaberria

Izadi loradendak urte asko daramatza San Juan kalean. Kolorez beteriko eskaparateak bizipoza eman ohi dio kaleari, baina koronabirusak usteldu egin du loreen distira. Martxoaren 14az geroztik itxita dago Izadi, hau da, udaberriaren ataritik, loreek eztanda egiten duten sasotik.

Izadi loradendako **GARBIÑE AJURIA** “oso ardurata” dago egoera honen aurrean. “Aholkularitzakoekin harremanetan nago hasieratik eta erraztasun asko emango zigutela esan zidaten: autonomoen kuotak eta Gizarte Segurantzako kuotak ez zirela ordainduko, autonomoen langabezia-presazioa izango nuela... baina hilabete honetako autonomoen kuota kobratu digute dagoeneko. Aholkularitzakoek esan didate diru hori itzuli egingo digutela, baina lehenik kendu egin digute. Autonomoak beti gara gehien galtzen dugunak, inor ez da gurekin akordatzen. Hau oso gogorra da”. Gainera, loradendan beste pertsona batek egiten du lan eta ERTEa egin behar izan dute.

Garbiñek egun batetik bestera itxi egin behar izan zuen denda eta erakustokian zeuden lora guztiak zakarrontzira bota behar izan zituen. “Gainera, 10 egun lehenago landare asko ekarri nituen eta ikusiko dugu hortik zenbat libratzen diren. Astean behin loren mantenua egiteko joaten uzten badidate, zerbait lortuko nuke, baina ez da kasua”. Beraz, ezin ditu dendan dituen loreak saldu, ezta



zaindu ere. “Zalantza handiko egoera da, egonezin sentsazioa da txarrena”.

Orainaldia ez da batere erraza, baina gero etorriko denak arduratzen du Garbiñe. “Orain ez dugu diru-sarrerarik, fakturak ordaintzen jarraitu behar dugu... ea nola ematen diogun buelta guzti honi. Gainera, loradenda bat ez da behar-beharrezko denda bat”. Dena dela, Garbiñek lan egiteko gogo handia du eta bere esku dagoena egingo du aurrera egiteko. “Etenaldi honetan burua martxan dago egin dezakeguna pentsatzen, baina ez dakigu zein panorama aurkituko dugun denda zabaltzeko eguna iristen denean. Zaila da ezer aurreikustea. Mamu baten aurka borrokatzea bezala da”.

Egoera honen aurrean elkartasun keinuak nagusi dira gizartean eta, gero ere, konfinamendua amaitu eta dendak zabaltzen dituztenean, herriko dendari txikiek elkartasuna jaso beharko dute. “Hori zoragarria izango litzateke, baina hau guztia pasatzen denean mundu guztia merkataritzagune handietara, Amazonera eta horrelako tokietara joango da erostera. Ez dut uste gertaera honek mugarririk ezarriko duenik. Pertsona askok kontzientzia hartuko dute eta dendari txikien egoeraz ohartuko dira, baina orokorrean ez dut itxaropen askorik”.



KEZKA ETA ZALANTZA EGOERA HERRIKO DENDETAN

Ateak itxita, baina lanean

Helmet House zerbitzu ezberdinak eskaintzen dituen denda da. Alde batetik, denda dago. *“Eibar eta inguruko diseinatzaileen sorkuntzak saltzen ditugu eta ekintzaileei tokia eman nahi diegu”*, **MAITE APERRIBAY**k azaldu digunez. Bestetik, osasun arloa. *“Jarrera-berregokitzea lehenesten dugu”*. Eta azkenik, ekitaldien atala. *“Guk geuk ekitaldiak sortzeaz gain, ekitaldi pribatuak egiten dira Helmet Housen (urtebetetzeak, bestelako ospakizunak...) eta beste toki batzuetan (enpresetan, etxebizitzetan...) ekitaldiak antolatzen ditugu”*.

Helmet Housek alarma egoera ezarri baino lehen eten zituen osasun arloko zerbitzuak. *“Azken finean, bezeroen osasuna lehenesten dugu”*. Denda ere itxi egin behar izan zuten, eta ekitaldiak eten. Ekitaldien alorrean, hala ere, bezeroek ez dituzte programatutako ekitaldiak bertan behera utzi, atzeratu baizik. *“Eta hori ona da”*.

Helmet House familia bat dela dio Maitek, *“eta jendea etxean bezala sentitzen da gurean”*. Aurrera egin ahal izateko Helmet House familia osatzen duten kide guztien elkartasuna berebizikoa izango dela uste du eta eskerrak eman nahi dizkie familia hori osatzen duten langile, hornitzaile, sortzaile eta bezeroei. *“Familia bat gara eta orain ikusten ari da hori horrela dela”*.

Dendako ateak itxita ditu Helmet Housek, baina horrek ez du esan nahi geldirik daudenik. *“Sare sozialetan aktibo jarraitzen dugu eta, horrela, gure bezeroengandik hurbil sentitzen gara”*. Gainera, etenaldi honetan webgunea eta katalogo digitala berritzeko aprobetxatu dute, eta hainbat proiekturi abiadura emateko balio izan die. *“Datorren martitzenean, adibidez, Sisters and the City-koekin irratsaio batean hartuko dugu parte. Eta bestetik, momentuz ezin dugunez ‘Pasa gau bat Helmeten’ ekimenarekin jarraitu, asteburu honetatik aurrera ‘Aldu Helmetekin’ ekimena jarriko dugu martxan. Konfinamendu sasoiaren jendeak asko kozinatzen duenez eta bizitzak aurrera egiten jarraitzen duenez (egun hauetan urtebetetzeak edo urteurrenak ospatu dira, beti bezala), sare sozialen bitartez hainbat aholku emango ditugu afari bereziak egiteko”*.

Egoera berezi honetan egun onak eta txarrak daukela dio Maitek. Hala ere, etorkizuna modu positiboan ikusten saiatzen da eta urte hauetan egindako lanak asko lagunduko diela uste du. *“Ez dugu pentsatu behar putzu batean sartuta gaudela, laster argia ikusten utziko digun tunel batean baizik”*. Horrela, Helmet Housen lanean jarraitzen dute indar gehiagorekin itzultzeko. *“Eta gero, guzti hau amaitzen denean, jaia egingo dugu: ‘Corona party’”*.



IOSU ARRAIZ, MANKOMUNITATEKO PRESIDENTEA:

“Sasoia proposa izan daiteke hondakinak ondo sailkatzeko”

– Lehenik eta behin, nola zaudete osasunez eta animoz, eta nolako eragina izan du Covid-19ak zeuen eguneroko funtzionamenduan?

Animoz ondo, eta osasunez, momentuz behintzat, ondo. Beraz, ezin gara kexatu. Mankomunitatetik eskaintzen dugun zerbitzua oinarrizko zerbitzuetako bat da, eta bertako langileekin eskaintzen dugu zerbitzua. Beraz, taldeen berrantolaketa eragin digu gehien bat Covid-19ak. Hori izan da aldaketa nagusia. Ahal diren lan administratiboak etxetik egiten dira, baina badira beste batzuk, zerbitzuarekin zuzenean lotuta daudenak, bulegotik egiten jarraitzen ditugunak. Bulegoetako lanpostu guztietan betetzen ditugu, hala ere, segurtasun-neurri guztiak, eta bulegoak berrantolatu ditugu jendea lanean bakarrik egoteko.

– Hondakinaren bilketa eta kaleen garbiketa dirazuen zeregin nagusiak. Nolako neurriak hartu dituzue orain arte koronabirusari aurre egiteko?

Kaleen garbiketa berrantolatu dugu eta makina bidez egiten diren zerbitzuei eta desinfekzioei lehentasuna eman diegu. Kaleak baldeatzen eta desinfektatzen gaude eta horretarako sodio hipoklorittoa erabiltzen dugu; arreta berezia jartzen ari gara gaur egun zabalik dauden denda inguruetan eta eskudela eta antzeko hiri-altzarrietan. Horiez gain, zabor- edukiontzien inguruak ere desinfektatzen dihardugu. Gainera, edukiontzia zabalik utzi ditugu, lurrian jartzen diren poltsak ekiditeko alde batetik, eta segurtasun- eta osasun-neurri bezala bestetik. Covid-19a duten pertsonen edukiontzi grisa erabili behar dutenez, segurtasun-neurri bezala hartu genuen erabaki hori. Errefusaren edukiontzietan bezala, organikoa biltzeko edukiontzietan ere pedalak jartzen hasi gara. Herritarrek eskudelak ikutzea saihestu nahi dugu, eta epe motzean segurtasun-neurri moduan funtzionatuko badu ere, gerora begira ere balioko du.

– Nola ari dira portatzen herritarrek? Birziklatzen jarraitzen dute?

Orokorrean jarrera ona ikusten dugu, batez ere lurrian pilatzen diren poltsen inguruan, gutxiago daude orain dagokien lekutik kanpo. Herritarrek birziklatzen jarraitzen dute, bai, baina oraindik ez dauzkagu eskuragarri datu guztiak. Bi kasu bereizi behar ditugu: batetik, Covid-19a dutenak (ez dute birziklatu behar eta guztia errefusara bota behar dute bi poltsatan sartuta) eta, bestetik, gainontzeko herritarrek (birziklatu egin behar dute). Herritarrei esango nieke, egun hauetan denbora



gehiago dugula-eta, kontuan izan dezatela zabor bakoitza nora bota, hondakinak ondo sailkatzeko denbora har dezatela. Aukera ona izan daiteke.

– Konfinamendu aldia aldatu egin dira sortzen diren hondakin-motak?

Aurreko egoerako datuekin alderatuz, nahiko berdintsuak dira momentuz, egia esan. Kontuan izan behar dugu, askok etxean garbiketarako egiteko aprobetxatu badute ere, komertzioak itxita daudela, eta ez dutela hondakinak sortzen. Frakzioei buruz, momentuz behintzat, ez da aldaketa nabarmenik antzeman.

– Lana egiteko modua berrantolatu behar izan duzue?

Bai, zerbitzua birmoldatu egin dugu. Langileen osasuna bermatzeko txandakatu egin ditugu lanerako sarrierak adibidez, euren artean ahalik eta kontaktu gutxien egon dadin. Horretaz gain, zerbitzuaren zati bat erreten moduan dago etxean, zerbitzuko inor gaitxotuko balitz lanean jarraitu ahal izateko eta zerbitzua beti bermatuta egoteko.

– Etxean koronabirusa duen baten bat izanez gero, neurri bereziak hartu behar dira gaixo horrek sortzen dituen hondakinekin edo erabiltzen dituen gauzekin?

Koronabirusa duen norbait etxean izanez gero, bere hondakinak eta erabilitako eskularru, maskarilla... guztiak boltsa desberdin batean sartu behar dira. Ondoren, poltsa hori beste poltsa batean sartu behar da eta oso ondo itxi. Bukatzeko, lehen aipatu dudak bezala, ezin dituzte hondakinak birziklatu, eta guztiak batera errefusaren edukiontzira bota behar dituzte.

Debarreneko ESIk lau zentrotan pilatu du lehen mailako arreta

Osakidetzak jakinarazi duenez, COVID-19aren eraginez osasun zerbitzuetan bizitzen ari diren ezohiko egoerara moldatzeko, hainbat aldaketa egin behar izan dituzte eta, astelehenaz geroztik, Debarreneko ESIk ematen duen lehen mailako arreta lau zentrotan (Eibar Ospitalean, Eibarko anbulatorioan, Elgoibarko osasun zentruan eta Debakoan) ematen hasi dira.

EIBAR OSPITALEA (Otaola, 6-8)

Arnas patologia duten gaixoak (Eibar, Ermua eta Mallabikoak)

Ordutegia: **08:00etatik 17:00etara.**

Telefonoa: 943032650

EIBARKO ANBULATORIOA (T. Etxebarria, 29)

Arnas patologiarik EZ duten gaixoak (Eibar, Ermua eta Mallabikoak)

Ordutegia: **08:00etatik 17:00etara.**

Telefonoa: 943032500

Elgoibarko Osasun Zentrua (B. Ezenarro, 13)

Arnas patologiarik EZ duten gaixoak eta arnas patologia dutenak (Mendaro, Soraluze eta Elgoibarkoak)

Ordutegia: **08:00etatik 17:00etara.**

Telefonoa: 943032610

Debako Osasun Zentrua (Bastinuixa, 1)

Arnas patologiarik EZ duten gaixoak eta arnas patologia dutenak (Deba, Mutriku eta Itziarokoak, zona espezifikotetan).

Telefonoa: 943192424

Ordutegia: **08:00etatik 17:00etara.**



Arreta ez presentziala

Horrez gain, larrialdi egoeran daudela eta, programatutako kontsultetara ez joateko eskatu zieten ESla osatzen duten zentruetako pazienteei aurreko egunean, medikuak berak kontsultara joateko agindu ezean (txanda hartuta dutenei medikuak deituko die, kontsultara joan ala ez esateko). Egoerak hobera egin arte, ARRETA EZ PRESENTZIALA ematen jarraituko dute, herritarrak ahalik eta gutxien mugiarazteko. Horretarako "Call Centre" bat ipini dute martxan: bakoitzak bere ohiko osasun zentzura deitu beharko du eta, Call Centre horren bitartez, berarentzat egokienak diren zerbitzu eta baliabideetara bideratuko dute. Asteko zazpi egunetan emango du arreta, 08:00etatik 00:00etara.

KORONABIRUSA EGOERA HAU ZURETZAKO GEHIEGI BALDIN BADA
LAGUNTZA ESKATU EZAZU ZURE OSASUN ZENTROAN

ONGIZATE EMOZIONALA



- Pentsatu egoera hau pasatu egingo dela
- Isolamendua kutsadura saihesteko beharrezkoa da
- Sortu zure eguneroko errutina
- Egon besteekin telefonoz konektatuta
- Saiatu jarrera positiboa izaten eta erlaxatu
- Informatuta egon zaitez baina mugatu informazioarekiko esposizioa

ELIKADURA



- Menu osasuntsu eta orekatuak gertatu itzazu
- Fruta, barazkiak eta lekaleak jan itzazu
- Ongi hidratatuta egon, ur asko edan ezazu
- Otordu artean mokadurak saihestu, opil industrialak, adibidez

ARIKETA FISIKOAK



- Egin itzazu egunero ariketa fisikoak: etxeko lanak, dantzan, kirola eta oinez ibili
- Saihestu sedentarisinoa
- Ez zaitez ordu bete baino gehiago jarri lekuan exerita egon

LOAREN HIGIENE-OHITURAK



- Lo errutina bat sortu ezazu
- Lo-ordutegi erregularrak sortu itzazu
- Ohera joateko eta ohetik jaikitzeo ordutegia planifikatu ezazu
- Ez zaitez ohean denbora gehiago geratu
- Ez zaitez gaeuz telebista aurrean berandurarte egon




COVID-19.EUS aplikazioa sortu du Osakidetzak

Koronabirusaren inguruko informazioa batzen duen COVID-19.EUS aplikazioa sortu du Osakidetzak. "Herritarren bokazioa duen aplikazioa da", Osakidetzaren berbetan, "koronabirusa gelditzen laguntzeko". Aplikazioak hiru helburu ditu: prebentzioa, etxeetan egon daitezkeen kasuen jarraipen handiagoa eta kasu-kontzentrazioen analisisa. Momentuz Android sistema duten mugikorretan erabili daiteke, baina laster egongo da eskuragai Apple markakoentzat.



IZASKUN ORTEGA, LA SALLE IKASTETXEKO ZUZENDARIA:

“Internet bidezko hezkuntza ondo dago, baina ikasleekin egotearen falta igartzen dugu”

– Hiru aste daramatzazue ikastetxean klaseak eman barik. Nola antolatu zarete klaseekin jarraitzeko?

Talde lan handia eginez: ziklo eta etapa bakoitzean gauzak antolatuz, eguneroko bilera telematikoak mantenduz. Orain koordinazioa eskolan gaudenean baino estuagoa izan behar da eskola ezberdinetako lana partekatuz, iritziak elkartrukatzuz, egiteko erak aztertuz eta konpartituz. Ia egunero izaten ditugu bilerak bideokonferentzia bitartez.

– La Salleren kasuan 2 urtetik 18 urtera arteko ikasleak dituzue. Nola jarduten duzue?

Gure helburua familia guztiei erantzuna ematea da eta kontziente gara errealitate desberdinak ditugula. Beharrak dituzten familien ondoan egotea garrantzitsua da momentu honetan. Haur Hezkuntzako (HH) etapan, adibidez, proposamen pedagogiko malgua egiten zaie familiei. Astero seme-alabekin landu ditzaketen webguneak bidaltzen dizkiegu, eta aurreidazketako eta aurreirakurketako lanekin jarraitzera animatzen ditugu. Hala ere, kontuan izan behar dugu baliabide teknologikoen mende eta gurasoen prestutasunaren esku daudela (guraso batzuek lanean jarraitzen dute). Bestetik, Lehen Hezkuntzako (LH) etapan proposamen didaktikoa jasotzen dute astero eta ikasleek agindutako lanak egiten dituzte. Mailaren arabera antolaketa eta harremana desberdina da. 3. mailan, adibidez, eskolan erabiltzen den *Snap-pet* metodologiarekin dabilta matematika eta hizkuntzak lantzen, eta *Hangouts* aplikazioa erabiltzen dute elkarrekin konektatuta egiteko. Azkenik, DBH eta Batxilergoko etapetan online dihardugu lanean arazo handirik gabe. Hiru urte daramatzagu ‘1X1’ proiektuarekin.

– Bat-batean gertatutako egoera izanik, zeintzuk dira egoera berri honetan sortu zaizkizuen arazorik handienak?

Ez gaitu hain umezurtz harrapatu. Plataforma digital propio batean, Salleneten, egiten dugu lan aspaldi eta edozein tokitatik interneten bidez ikasleak zein irakasleak konekta daitezke eta baliabideak sortu, igo eta ikusi. Bestalde, azkenengo bi




urteetan irakasleek Google for education ikastaroak jaso eta ziurtagiriak atera dituzte. Maila gorenetan ezinbesteko erraminta bihurtu zaigu. Bestalde, La Sallek proiektu honetan sarean lan egiten duenez, teknologiaren funtzionamenduz arduratzen den IKT talde bat dugu. Hiru aste hauetan jo eta su ari da lanean dauzkagun zailtasun guztiei erantzuna emanez.

– Ikasle guztiek dituzte etxetik ikasten jarraitzeko baliabideak?

Tutoreen bidez familiekin harreman estua izaten ahalegintzen gara eta baliabide teknologikoak behar dituzten familiei dispositiboak utzi dizkie eskolak. Internetekin arazorik badute, proposamen didaktikoa paperean jaso dezaten arduratzen gara.

– Nolakoa da ikasleen egunerokoa orain? Ordutegi berari eusten diozue?

Etapax baxuenetan dauden umeen familiei astelehen goizean bidaltzen zaie proposamen didaktikoa. LHtik gora, ikasleen ordutegiaren arabera saioak eta lanak prestatzen zaizkie. Ikasleen autonomia handiagoa den mailetan tutoreek jarraitzen zehatza egiten dute, bai zalantzak argituz bai ikasleak animatuz, egoera hau oso berezia izaten



diharduelako eurentzat. Kontziente gara gurasoen egoera askotan ez dela batere erraza, batzuek lana galdu dutelako, eta hori da kezkarik handiena, batzuek ez dutelako baliabide teknologikoak erabiltzeko formaziorik eta abar. Bestalde, umeen adina txikia denean malguak izan behar gara, familiak ez dira zapalduak sentitu behar. Bigarren hezkuntzan, ostera, orduz orduko lana proposatzen zaie. Zenbait klase bideokonferentziak ematen dira, eta beste batzuetan lana proposatu, jaso eta ebaluatu. Ikasleek errutinarekin jarrai dezaten ahalegintzen ari gara.

– Ikastetxean zenuten ikasteko erritmoa bera jarraitzen duzue edo ahalegin berezia egin behar da egoera eta ikasteko ekosistema berria delako?

Ekosistema ezaguna da, baina ez da berdina aurrez aurreko edo internet bidezko hezkuntza. Irakasleek izugarrizko lana dihardute egiten jarduerak eta klaseak prestatzen, eta baita ikasleek dituzten zalantzak argitzen ere. Jarduera horretan ezinbestekoa da familiek egiten diharduten ahalegina. Internet bidezko hezkuntza ongi dago, baina ikasleekin egotea faltan botatzen dugu.

– Ikasle eta irakasleen artean zuzeneko harremana eduki barik, euren arteko harremana aldatu egin da? Eta ikasleen artekoa?

Harreman estua mantentzen ari gara, bai familiekin bai tutoreekin. Batxilergoko 2. mailako familia guztiekin eta ikasleekin egin dute berba tutoreekin. Oso egoera berezia da eta ikasleak oso urduri daude. Ahal dugun neurrian eurekin gaudela sentiarazi nahi diegu. Bestalde, beste mailetakotutoreak gelako ordezkariarekin harremanetan daude eta hauek gelako beste kideekin.

– Lehenik 15 eguneko konfinamendua ezarri zuten, luzatu egin zuten gero, eta ez dakigu ikastetxeak noiz zabaldu ahal izango diren.

Zein da zuen aurreikuspena? Ikasturtea luzatzea posible da?

Nik uste dut hori ez dagoela ikastetxeen esku. Agintariek ezarriko dizkigute bueltatzeko epeak eta ikasleekin egoteko momentuak. Bestalde, Batxilergoko 2. mailako ikasleek badakite uztailean izango dutela USE (Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioa) proba, beraz guk ere egutegia aldatu beharko dugu beraien beharretara moldatzeko.

– Ikastetxeak urte hasieran zituen helburuak bete ahal izango dira?

Aurrez aurreko hezkuntza egon ezean oso zaila da helburu guztiak lortzea. Telematikoki ezin da landu gure ikasleen izatea, pertsona giza haztea. Estimuluak jasotzen jarrai dezaten saiatzen gara balioetan hazteko, baina ezinbestekoa da elkarrekin bizitzea eta hezitzaileen ezinbesteko testigantza. Gure ikasleekin egunerokotasuna laster partekatu ahal izatea nahi genuke. Bien bitartean, eskaintzen dakigun onena emango diegu.

– Nolabaiteko normaltasun egoerara itzuliz gero, neurri bereziak hartu beharko dituzue?

Momentuz ez dakigu noiz eta nola bueltatuko garen. Bueltatzeko momentuan gizarteak dituen neurrietara moldatu beharko gara. Uste dut normalizazio prozesuan ikastetxeak azkenetarikoak izango garela. Geletan, adibidez, pertsonen arteko 2m-ko distantzia lagatzea ezinezkoa da, ez dago espaziorik.

– Honek guztiak nola eragin ahal die ikasleei?

Hasieran, urduritasunak eta estresak jota zeuden. Dena dela, orain badirudi lan-jarduerarekin poliki-poliki aurrera goazela. Hasierako egunak oso estresagarriak izan ziren eurentzat. Ez zekiten etxeko lanekin nola hasi, klaseetara online konektatu behar ziren, nolakoa izan behar zen ebaluazioa... Guzti honek gizarte bezala markatu egingo gaituela uste dut, eta umeak zein gazteak are gehiago.

ANBULANTZIA-GIDARIAK babesgabe sentitzen dira

Osasun sistemako langileek duten guztia ematen dihardute koronabirusari aurre egiteko. Lehen lerroan egiten dute lan gaixoak sendatzen eta, kasu askotan, behar bezalako baldintzarik gabe. Osasun sistema horren barruan berebiziko piezak dira anbulantzia-gidariak eta ez dute ihes egin koronabirusaren atzaparretatik.

ELA sindikatuak martxoaren 13an jakinarazi zue-
nez, Ambuiberica Gipuzkoako **bi anbulantzia-gidari behaketan** zeuden babes neurri eraginkor gabe koronabirusa zuen gaixo bat eramateagatik, eta enpresak anbulantzia-gidarien segurtasuna bermatu behar zuela salatu zuen.

Anonimotasuna mantendu nahi duen anbulantzia-gidari batek esan digunez, behaketan zegoen langile bat lanean hasi da dagoeneko, baina besteak **positibo** eman zuen koronabirusaren proban eta koarentenan dago. Eta hau ez da positibo eman duen Ambuibericako langile bakarra. *“Lau lankide gehiagok eman dute positibo, 12 daude koarentenan eta beste hiru daude emaitzen zain”*, esan digu gure iturriak.

Norbere Babeserako Ekipamendu (NBE) barik ibili izan dira lanean, *“amaitu egin zirelako”*. Orain jasotzen dituzte, *“baina apurka-apurka eta osatugabe”*. Beraz, babesgabe sentitzen dira. *“Langile guztiok ez ditugu beharrezko babes neurriak, NBEak osatugabeak dira eta ahal den moduan inprobisatzen dugu. Behar dugun momentuan materiala eskaini ahal digun logistika zerbitzu egoki baten beharra dugu”*.

BI ORDUKO IKASTAROA

Anbulantzia-gidariak koronabirusaren prebentzioari eta NBEak jantzi eta erantzeari buruzko **bi orduko online ikastaroa** besterik ez zuten jaso, gure iturriak dioenez. Beraz, eskaini dieten formakuntzare-

kin eta babes-neurriekin ahal dutena egiten dute lana modu egokian egiteko. *“Gaixoekin gaudenean bi metroko distantzia mantentzen dugu”*.

Koronabirusa duten pazienteak artatu behar dituztenean NBEak jantzen dituzte, baina gutxieneko kasuak dira. *“Orokorrean sorospen zerbitzua eskaintzen dugu, eta guk maskara kirurgikoa eta eskularruak jantzen ditugun bitartean, pazienteei maskarak eta eskularruak ematen dizkiegu. Gero, balorazioa egiten dugunean, pazienteek duten sintomengatik koronabirusa izan dezaketela susmatu dezakegu (eztula, arnasteko arazoak, sukarra eta bestelakoak)”*.

KARGA PSIKOLOGIKO HANDIA

Anbulantzia-gidarien **lan karga handitu** egin da koronabirusaren ondorioz. *“Abisuen kopurua handitu egin da eta, jarraitu behar dugun protokoloaren ondorioz (NBEak jarri eta kentzeak, anbulantziak desinfektatzea...), atsedenerako denbora gutxiago dugu kasu batetik bestera. Horrela, karga psikologikoa handiagoa da”*.

Gainera, koronabirusak hankaz gora utzi du **langileen egutegia**. *“Sasoi honetan oporrak zituzten langile batzuek beste batzuen postuak bete beharko dituzte”*. Hala ere, enpresak ez du aurreikusitako egin langileak gaixotzen badira. *“Egoerak gertatu ahala hartuko dituzte erabakiak”*. Horrela, gure iturriak uste du **asetasun kasuak** eman daitezkeela.




ZURIÑE JUARISTI / MAITE ARRIOLA, PRENTSA SALTZAILEAK:

“Beldurrez lanean, baina BEZEROEI ESKERTUTA”

Horrela dihardute lanean goizeko lehen orduetan egunero, baita asteburuetan ere, euren establezimenduak zabaltzen dituzten prentsa-saltzaileek. **ZURIÑE JUARISTI** Barrena kaleko estankoko jabeak *"beldur handiz"* jaso zuen alarma-egoeraren hasiera, *"batez ere kutsatzeko arriskuari begira: ez nuen inor kutsatu nahi, eta ezta ni kutsatzea"*. Hainbat neurri hartzera eraman zuen horrek, bezeroak zaintzeko: *"Egunero desinfektatzen ibiltzen naiz, hara eta hona: makinak beste modu batera kokatuta, kaxa hutsak barrera gisa... Eta irten aurretik ere guztia garbitu behar!"*. Egunen joan-etorriarekin, zertxobait lasaitu da Zuriñe: *"Azken egunotan maskarila ere kendu dut, aspertuta nengoen berarekin"*. Bere jarduna aldatu egin da, jakina, egoerak derrigorputa: *"Orain goizez zabaltzen dut bakarrik, 07:00etatik 13:00ak arte. Arratsaldean siesta egiteko aukera eskaintzen dit egoera honek, abantaila txiki bat"*. Tabako salmenta asko jaitsi dela dio Juaristik, *"baina egunkari gehiago saltzen dugu orain, eta baita ogia ere; azken aldian ogi barik geratzen gara 12:00etarako"*. Bestelako aldizkari eta denborapasen salmentak ere gora egin duela dio, *"batez ere hasierako egunetan"*. Loteriarik ezin denez saldu, *"arratsaldez zabaltzeak ez du zentzurik"*. Bezeroekin berba egiteko tartea asko murriztu da, guztiak banan-banan sartu behar direlako. Baita neurri hori ondo bete ere: *"Jendeak oso ondo erantzun du eta errespetuarekin jokatu du; horregatik, eskertu nahi dugu egunero bisitatzen gaituen bezeroen jarrera"*. Dendarik apenas dagoen kale horretan ondo eutsi beharreko zerbitzua eskaintzen du Juaristi estankoa.

Urkizuko Arriola kioskoan ere asko aldatu da mar-txa azken asteotan. Goizeko 06:30ean zabaltzen dute eta eguerdiko 13:00ak arte hartzen dute jendea. Egun hauetan, baina, **MAITE ARRIOLAK** bere senarrak baino ordu gehiago egiten ditu jendea artatzen: *"Jabik zabaltzen du kioskoa eta 08:00ak arte edo egoten da. Gero nik hartzen diot lekukoa eta itxi arte"*. Jakina, Urkizun ere arratsaldez ez dute zabaltzen, *"loteriarik ezin saltzeak ez duelako beharrezko egiten"*. Maitek batez ere *"alarma egoerak piztu zuen hasierako estresa"* na-



Maite Arriola

barmentzen du, *"jendea noraezean eta urduri ikusten genuelako"*. Euren ere eragin zien horrek, *"batez ere, guztiok zaintzeko bagenekielako neurriak hartu behar genituela"*. Orditik geratu gabe dabil egunean *"ez dakit zenbat aldiz"* ateko pinoa eta ingurune guztia garbitzen, establezimendua itxi aurretiko garbiketa orokorra ahaztu barik. Prentsa-salmenta jaitsi egin dela dio Arriolak, *"eta baita bestelako aldizkariena ere; jendeari sartzea ere erreparoa ematen dio eta, gainera, astirik ere ez du hartzen apaletakoei begi bat botatzeko, kanpoan jendea sartzeko zai dagoelako"*. Argi dute askoz ere jende gutxiagorekin dihardutela egun hauetan; horregatik, prezeski, *"eskerrak eman nahi dizkiegu egunero gurekin izaten ditugun guztiei. Bisita inoiz baino laburragoa izanda ere, badeute meritua. Eskerrik asko, benetan"*.

Estaziño kaleko kioskoa itxi egin behar izan du **ENRIQUE SANCHEZ**ek, *"amarekin bizi naizelako, eta berak arrisku handiagoa izan dezakeelako"*. Hala ere, bezeroak buruan ditu egun hauetan ere: *"Itxaropena dut Aste Santua pasatuta bueltatzeko, goiz-goizetik jendea hartzeko"*.

ZERGA SISTEMARI

ere eragin dio COVID-19ak

Koronabirusa mundu osoan zehar zabaltzen joan da eta, horrekin batera, COVID-19aren eragina ere denera ailegatu da, baita errenta aitortpena aurkezteko hasi berri den kanpainara ere.

Gipuzkoako Ogasunak, beste guztiak bezala, neurri bereziak hartu behar izan ditu, koronabirusaren pandemia zabaltzea saihesteko asmoz eta, bereziki 2019ko Errenta Aitorpenaren kanpainarako hartutakoak hauek dira:

- Bulegoak itxi eta aurrez aurreko arretarik ez dago

Koronabirusaren krisia dela eta, Gipuzkoako Foru Ogasuneko bulego guztiak aldi baterako itxita egongo dira, herritarrei aurrez-aurreko arreta zerbitzurik eman gabe. Neurriak zergadunen %20 ingururi eragingo die.

Hala ere, telefonoz (943113000) eta interneten, Gipuzkoako Ogasunaren web orriko zerbitzu telematikoen bitartez (gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna/tramiteak) atendituko dituzte herritarrak.

- Errenta aitortpenak (proposamenak, internet bidezkoak eta ondare aitortpenak) **aurkezteko epea** aurreikusita zegoena baino hilabete geroago, **uztailaren 29an amaituko da.**

- Modalitate mekanizatuan, berriz, **aurkezteko epearen hasiera atzeratzea** erabaki dute. Gaur egungo egoerak zenbat iraun dezakeen aurreikusierik ez dagoenez, data zehazteko moduan daudenean emango dute horren berri, aurrerapen nahikoarekin.

Gauzak horrela, errenta proposamenik egiten ez zaien zergadunei errenta aitortpena internet bidez aurkezteko gonbidapena egin die Ogasunak, aurkezteko epea ez atzeratzeko.



AUTOLIKIDAZIO PROPOSAMENAK

Modalitate honetan ez da aldaketarik aurreikusten eta lurralde osoan 200.000 zergadunei autolikidazio proposamena bidaliko zaie, normaltasun osoz.

Onartzeko epea: apirilaren 6tik uztailaren 29ra.

Onartzeko moduak:

Telefonoz, 943 113 000 zenbakira deituta (apirilaren 6tik aurrera). Zure IFZ eta proposamenean azaltzen den kodea eskatuko dizkizute.

Internet bidez, Gipuzkoako Ogasunaren webgunean "autolikidazio proposamenak" atalean sartuta.



KANPAINAKO ZERBITZU TELEMATIKOAK:

- Autolikidazio proposamena ikustea (2020/03/30etik aurrera)
- Autolikidazio proposamena onartzea (2020/04/06tik aurrera)
- Errenta mekanizaturako hitzordua eskatzea (zehaztu gabe)
- Zerga informazioa Gipuzkoataritik eskuratzea (2020/03/13tik aurrera)
- Zerga informazioa postaz bidaltzeko eskatzea (2020/03/13tik aurrera)
- B@kQ eskatzea sistema telematiko aurreratuetan sartzeko (aitorpen telematikoak, zerga informazioa, kontsultak, ziurtagiriak, etab...)

OHIKO GALDERA BATZUK

Nola aurkeztu dokumentazioa paperezko euskarrian?

Idatziak: Posta ziurtatuaren bidez, posta-bulegoetatik, zerbitzu horretan egon daitezkeen aldageta eta murrizketak kontuan hartuta (informazio gehiago Correosen webgunean).

Aitorpenak: Posible den ereduaren kasuetan Finantza entitate laguntzaileetan (informazio guztia web orrian)

ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ, AURTEN ERE

Errenta aitortpena egiteko aurrez aurreko hitzorduak bertan behera geratu dira koronabirusaren aurrean ezarri den alarma egoeraren ondorioz. Baina, hala ere, UEMAk, udalek eta hainbat erakunde publikok errenta aitortpena euskeraz egiteko kanpaina jarriko dute martxan aurtengo ere, egoera berezia izan arren, herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskeraz izan daitezzen bultzatzeko asmoz. *“Errenta euskeraz egiten duen herritarren kopurua gorantz ari den arren, errealitate soziolinguistikoak erakusten dituen datuetatik urrun dago oraindik”,* UEMAren berbetan. Iaz, adibidez, Eibarren 14.234 errenta aitortpen egin ziren guztira eta, horietatik, 1.402 baino ez ziren aurkeztu euskeraz.

ARGITARATZAILEA: ...eta kitto! Euskara Elkartea.
HELBIDEA: Urkizu, 11. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18 603 598 285
FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK: erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus / publizitatea@etakitto.eus
ELKARTEAREN E-MAILAK: elkarte@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA: Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA: Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA: Malen Jainaga eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA: Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA: #nireetxekoLeihotik

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



(*...eta kitto!* "k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzunkizunik)



–KOLABORAZIOA– IÑAKI ELORZA:

Konfinamendua eta elikadura arduratsua

Konfinamendua luzatuko dela dirudi... Zer egin dezakegu egun hauek pasatzean hainbat kilo gehiago ez edukitzeko?

Hotzean pentsatzen badugu abantailak aurkitu ditzakegu konfinamendu eta kiloen arteko erlazioan. Bat-batean inongo bizitza sozialik gabe geratzen gara, lagunekin barixakuetan jaten dugun ogitartekoa, garagardoak, pintxoak, amaginarrebarekin igandetako bazkaria, lagunartean hartzen dugun kafea, pintxo-potea, etab. Beste giro arriskutsu batzuk ere alde batera uzten ditugu, lanekoa adibidez. Ez ditugu lankide guztien urtebetetzeak ospatuko eta ez dugu janari gozoa jasoko lanean egindako mesedeengatik, adibidez. Janariarekin edukiko dugun harreman bakarra etxera mugatuko da, eta bertan kontrol zorrotzagoa ezarri dezakegu. Hori bai! Honek **arduratsuak** izatera behartzen gaitu. Eta hemen daukagu gakoa, **EROSKETA!** Bai, horren erraz. Etxean bakarrik jango dugu, hortaz, guk geuk erositako elikagaietatik bakarrik. Beraz, zer erosi behar dugu? Erantzuna erraza da: **janaria**. Gaur egun hain bogan dagoen **real food** edo benetako janaria deritzona. Produktu jangarriak edo elikagai **ultra-prozesatuak** aldera batera utziz. Barazkiak, fruta, tuberkuluak, haragia, arraina, arrautzak, lekaleak, labore integralak, azukrerik gabeko esnekiak eta koipe osasuntsuak abiapuntu bikaina izan daitezke.

Pisua erraztasunarekin hartzen duzun horietakoa bazara, ez legoke soberan geratzen diren konfinamendu egun hauetan pisua monitorizatzea. Pisatzea alegia. Baskulak goranzko joera hartzen badu, lehenbailehen neurriak hartu ahal izateko. Kasu honetan arroza, pasta, ogia eta koipe orokorra murriztea izan daiteke hartzeko lehenengo neurria.

Ekuazioaren bestaldean kaloria kontsumoa dugu. Argi dago hau gutxitu egingo dela egun hauetan. Batez ere **NEAT**-aren murrizketagatik. NEAT-a egunerokotasunean kirola ez diren ekintzek eragindako kaloria erretzea da (erosketak egin, eskailerak igo, lanean ibili, etab.) Zer egin dezakegu honen aurka? Ba kirola! YouTube edo Instagram-en hamaika kontu dauzkagu egunero zuzeneko kirol saioak eskaintzen. Gure neurrirako bat aukeratzea da egin behar dugun bakarra. Oraingoan denbora ez da aitzakia. Zaindu!

Pertsonen osasunaren gainera ekonomia ez gaixotzea lehenetsi dute

Alarma egoera ezarri zenetik, sindikatuek eta herritar askok lan jarduerak bertan behera lagatzeko dekretua ezartzea eskatu diote Espainiako Gobernuari. Lantoki askotan COVID-19arekin ez kutsatzeko gutxieneko segurtasun baldintzarik betetzeko modurik ez dagoela behin eta berriz errepikatzen ibili eta gero, beharginen osasuna arriskuan ipintzen ari zirela eta, horrekin batera, gaixotasuna herritarren artean kutsatzeko arriskua areagotzen ari zirela etenbarik salatzen aritu dira eta, azkenean, domekan jakinarazi zuen gobernuak astelehenetik aurrera *“funtsezkoak ez diren”* lan guztiak etengo zituela. Pedro Sanchez Espainiako Gobernuko presidentek Moncloako bere agerraldian esan zuenez, neurria *“zortzi egunetz luzatuko da, apirilaren 9ra arte -Aste Santura arte-, eta langileek berreskuratu beharko dituzte orduak”*.

Albisteak askorengan sortutako pozak, baina, ez zuen asko iraun, murrizketa indarrean sartu orduko, martxoaren 31 an, Madrilgo Gobernuak enpresa batzuei *“gutxieneko jarduera bat”* baimendu zien eta. Horrela, enpresen jardueraren eteteak zenbait sektoretan eragindako haserrea baretzeko asmoz, Espainiako Gobernuak salbuespen batzuk ezarri zituen funtsezkotzat jotzen ez diren jardueretan, eta bereziki inportazioan eta esportazioan aritzen direnei eragingo diete, haien jarduera edozein dela ere. Nadia Calviño Ekonomia ministroak, *“funtsezko”* izaeraren interpretazio zabala egiteaz gain, Ministro Kontseiluaren amaieran, eskua zabaltzeko gakoa iragarri zuen: jarduerari eutsi ahal izango diote esportatzen duten eta itxieraren ondorioz merkatua galtzeko arriskuan dauden enpresek. Eta euskal industriarentzat funtzionatzeko igarobide moduko bat da.

Horrelako enpresei *“ezinbesteko gutxieneko jarduera bat”* baimendu die Madril, baina lana murriztu beharko lukete, adibidez, asteburuetan duten lan produkzio edo erritmora; asteburuko txandarik ez badute, ekoizpen txikieneko aldia hartu beharko lukete kontuan. Azaldutakoaren arabera, Hego Euskal Herriko enpresa handi askok zabaltzeko aukera izango lukete, euren bezero nagusiak nazioartean dituztelako.



Hasierako neurriari egin dioten aldaketarekin haserre, sindikatuak zorrotz agertu dira Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak industria sektoreko enpresak irekita mantentzeko egindako azken mugimenduekin. *“Interpretazioekin”* iruzurra egitea ez dutela onartuko azaldu dute eta osasuna lehenetsi dute. ELAren ustez, *“interpretazio-ohar batek ezin du ordeztu legedekretu batek zehaztutakoa”*. ELAren esanetan, pandemia ahalik eta azkarraren gainditzea izango da modu eraginkorrena etorkizunean egoera ekonomiko zailari aurre egiteko. Eta une honetako osasun egoera *“dramatikoa bizkarra eman”* eta ezinbestekoak ez diren jarduerak mantendu nahi dituztenen kontra egingo duela jakinarazi dute sindikatuko ordezkariak.

LAB sindikatuak ere Espainiako Gobernuak azken momentuan egin duen bi-ratzea salatzen du: *“Domekako dekretuaren irakurketak oso modu zabalean interpretatzeko aukera ematen du; hau da, enpresaburuak nahi dutena egiteko aukera zabaltzen du”*. Baina garbi laga nahi izan dute ohar horrek ez duela *“balio juridikorik”*, eta indarrean, jarduera ekonomikoa eteteko Errege Dekretua besterik ez dagoela.

JOAN-ETORRIAK JUSTIFIKATU BEHARRA

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun eta Ekonomiaren Garapen sailek formulario bat prestatu dute, lanerako joan-etorriak Ertzaintzaren edo Udaltzaingoaren aurrean justifikatu ahal izateko. Formularioa internet bidez deskargatu daiteke, Eusko Jaurlaritzaren Irekia atarian.

Bestalde, alarma egoeran gaudenetik, ertzainek eta udaltzainek kaletik norbait ikusiz gero, edozein momentutan eska dezake etxean ez egoteko arrazoa zein den azaltzea edo justifikatzea. **Eibarko Udaltzaingoak** emandako datuen arabera, alarma egoera ezarri zenetik **57 zigor** ezarri dituzte gure herrian. Horrez gain, **2.207 lagun eta 627 auto-gidari identifikatu** dituzte martxoaren 17tik 30era bitartean.



info@gerritek.net www.gerritek.net
Txantxa-Zelai, 4-6. Tel. 943 03 38 92

**Marka guztietako
ZERBITZU TEKNIKOA
eta SALMENTA**



**Neurrira
egindako
software-aren
garapena**




**24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com**

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

OSKAR AIZPURUA “ANDIKA”, GARRAIOLARIA:

“Errepideek beste itxura bat daukate orain”

Lan jarduerak murriztearen eta etxean konfinatzeko obligazioaren ondorioz sekulako estanak ikusten ari gara: jende barik dauden pasealekuak, zaratarik gabeko kaleak eta ia zirkulaziorik ez duten errepideak. Inoiz baino gehiago, kamioiak errepideetako errege bihurtu dira.

– Egunero ibiltzen zara errepidean. Nola ikusi dituzu egun hauetan?

Autopistan eta errepide nazionaletik ibiltzen naiz, Gipuzkoa eta Bizkaia inguruan gehienetan, eta egun hauetakoa ikaragarria da. Oso auto gutxi ikusten dira, eta momentu puntaletan bakarrik. Hortik aparte, ezer gutxi. Gehienak kamioiak gara, eta baita banaketarako furgonetak eta gremioetakoak ere. Kaleetako eta pasealekuetako panorama ere antzerakoa da. Sarritan pasatzen naiz Getaria-Zarauz errepidetik eta oilo-ipurdia jartzen zait pasealekua eta Zarauzko malekoa huts-hutsik ikustean. Bestalde, tabernak eta jatetxeak itxita daudenez faltan botatzen da kafetxoa hartzeko edo bazkaltzeko momentu hori. Zenbait lekutan jatordua arazo bihurtzen da. Garraiolari gehienok zabalik dauden gasolindegietan egiten dugu bazkaria (ogitartekoak, entsaladak...)

– Garraiolari autonomoa zara. Zure bezeroak lanean ari dira?

Nire bezeroak automobilgintzan eta trenak egiten jarduten duten enpresak dira batez ere, eta tamaina ertainekoak gehienak. Konfinamenduaren lehen egunetan enpresa handi batzuk ixten joan ziren, eta txikiek eta ertain gehienek, berriz, martxan jarraitu zuten. Logikoa denez, enpresen jarduna eteten edo murrizten bada, garraiolariok lan gabe gelditzen gara, edo gutxiagorekin. Astelehen honetan indarrean jarri zen dekretuaren ondoren, premia ez diren lan guztiak eten egin ziren. Beraz, 3 egun guztiz geldirik egon naiz. Hala ere, denok dakigunez, aldaketak egon dira eta enpresa batzuk berriro ere lanean hasi dira. Ondorioz, dei batzuk jasotzen hasi naiz, enkarguren bat egiteko. Orain ikusi beharko da apirilari nola egiten diogun aurre. Ziurgabetasuna da nagusi, ez dakigu zer gertatuko den.



– Nola ikusten dituzu autonomoentzako iragarri diren laguntzak?

Estatuko Gobernuak aparteko prestazio bat aurreikusitako jardueran bertan behera utzi duten edo jardueran jaitsiera nabarmena izan duten autonomoentzat. Prestazioa eskatu ahal izateko, fakturazioan %75eko jaitsiera justifikatu behar da, edo jardueran ezinbesteko arrazoi batengatik eten dela ziurtarazi (zamalantako lekuak itxi izana edo horientzat normalean ematen genituen zerbitzuak kendu izana). Segur aski, bigarren kasu hori da ohikoena, zaila baita fakturazioaren %75eko jaitsiera justifikatzea alarma-egoera baino lehenago jada 15 egunetan lan egin dugunean. Bestalde, autonomoen kuotak atzeratu egingo direla esan dute baita, baina martxoko kuota pasatu digute dagoeneko.

Euskera online praktikatzeko

TALDEAK ANTOLATU DITU ...eta kitto! Euskara Elkarteak

Koronabirusaren ondorioetako bat urruntze soziala da, isolamenduak kalera irten eta norbaitekin elkartzeko aukera izatea galarazi digulako. Egoera horrek, jakina, eragina izan du berbalagunengan ere, ezin direlako euskera praktikatzeko inon elkartu. Hala ere, mintzapraktikarako proiektuaz arduratzen den ...eta kitto! Euskara Elkarteak ez du haria eten nahi eta, horregatik, euskera online praktikatzeko aukera eman nahi die herritar guztiei, berbalagunei zein Berbetanen izenik eman ez dutenei. Arduradunen berbetan, *“izena emanda duten berbalagun asko hasita daude bideo-deien bidez elkartzen, gaur egun teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak baliatu eta, etxetik irten barik, euskera lagun artean praktikatzeko”*.

Bestalde, orain arte ezertarako denborarik ez zuten askori egunak oso luzeak ari zaizkie egiten eta, horregatik, ...eta kitto! Euskara Elkarteak euskera online praktikatzera animatu nahi ditu: *“Euskera praktikatzeko, lagun berriak egiteko, ondo pasatzeko, euskera gehiago erabiltzeko... aukera polita duzue orain eta, gainera, etxetik mugitu barik”*.

Horrez gain, ...eta kitto! Euskara Elkarteak euskaldunei dei egin nahi die, euskera praktikatu nahi dutenei laguntzera animatu daitezen: *“Emateko daukatena balio handikoa da eta, euskera praktikatzeko premia dutenek beneratan eskertuko dute euren ahalegin eta laguntza”*. Talderen batean aritzeko animatuz gero, izen-ematea elkartea@etakitto.eus helbidera mezua bidalita edo, bestela, etakitto.eus webgunean, Berbetan proiektuari eskaintako atalean egin dezakezue.



**Euskara online praktikatu
nahi duzu?**

Eta zu,
praktikatu nahi dutenei
laguntzeko prest?

ANIMATU !

 elkartea@etakitto.eus

 www.etakitto.eus



Euskaldunak behar dira TALDEAK OSATZEKO

Euskalduna zara eta euskera praktikatzeko premia dutenei laguntzeko prest zaude?

...eta kitto! Euskara Elkarteak euskera online praktikatzeko prest dauden euskaldunak behar ditu.

Oso erraza da. Bideo-deien bitartez elkartuko gara eta une goxo eta atseginean euskeraz jardungo dugu. Animatu eta eman izena, **elkartea@etakitto.eus** helbidera mezua bidalita edo **etakitto.eus** webgunean, Berbetan proiektuari eskainitako atalean.

Negozio txikiei DIGITALIZATZEKO AUKERA eskaintzen die PuntuEus fundazioak

PuntuEus fundazioak egoera larri honetan ate fisikoak itxi egin behar izan dituzten ostalari, merkatari, kulturalak eta bestelako negozio txikiei lagundu nahi die. Horretarako, 'Zabaldute berri bat' egitasmoa jarri du martxan, webguterik ez duten negozio txikiei lehen urtean .eus domeinua eta zerbitzaria doan eskaintzeko. *"Zure jarduera zabaltzeko .eus domeinu-izena, zure online presentzia indartzeko; hosting-a, zure webgunea bertan jartzeko; eta zure domeinu-izena duen helbide elektronikoa, bezeroekin komunikatu ahal izateko"*. PuntuEus fundazioaren webgunean dagoen formulario bat bete behar da deskontu-kodea eskuratzeko eta, laguntzarik behar izanez gero, laguntza@domeinuak.eus helbidera idatzi edo 943 08 50 51 telefonora deitu daiteke.

PuntuEus fundazioak, bestetik, webgune bat sortzeko eman behar diren pausoak zeintzuk diren jakiteko bideoak jarri ditu YouTuben eta kaixomundua.eus webgunean daude ikusgai.



.EUS domeinua eta zerbitzaria kosturik gabe.

Aldundiaren 450.000 euroko bonua telelana ezartzen laguntzeko

Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak martitzenean onartu du bonu teknologikoen programaren deialdia. Asmoa Gipuzkoako enpresa txiki eta ertainei, Covid-19aren ondorioz telelana ezartzeko egiten dituzten gastuetan laguntzea da. Guztira 450.000 euro bideratuko dira horretara, eta onuradunak 50 langiletik beherako lurraldeko enpresak izango dira. Programa foru erakundeak abian jarritako lehen neurri sortaren parte da, pandemiak Gipuzkoako ehun ekonomikoan dituen ondorioak arintzeko, ETEei eta autonomoei arreta berezia eskainiz.

Markel Olano diputatu nagusiak bileran jakitera eman duenez, programa berri honen bidez enpresek eta profesional autonomoek telelana ahalbidetzeko egindako gastuak ordainduko dituzte, hala nola PCak eta ordenagailu eramangarriak, web-kamerak, mikrofonoak eta bideokonferentzia-sistemak, software ofimatikoa, segurtasun informatikoko elementuak eta kasu bakoitzerako espezifikoak izan daitezkeen beste batzuk, prestakuntza edo aholkularitza gastuak barne. Diruz lagunduko da egindako edo egin beharreko gastuaren %100, BEZa kanpo; gehienez ere 4.000 euro enpresa bakoitzeko.



500 milioi euro EAEko autonomoak eta enpresa txiki eta ertainei laguntzeko

500 milioi euroko programa onartu du Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak, enpresa txiki eta ertainek eta autonomoek finantzatzeko izan ditzaketen beharrei aurre egiteko. Horretarako, hitzarmenak sinatu ditu hamabost finantza-erakunderekin eta Elkargirekin. Sei hilabeteko likidezari eta finantzaketa beharrei erantzutea du helburu programak, *“Covid-19ak euskal enpresa sarean eragingo dituen kalteak arintzeko”* asmoz.

EAEko enpresa txiki eta ertainek 5.000 eta milioi bat euro arteko maileguak eskatu ahalko dituzte eta mikro-enpresek eta autonomoek berriz, 5.000 eta 100.000 arteko maileguak. Laguntza honetaz baliatzeko bete behar diren ezauzgarriez, abalen kostu eta baldintzez eta programaren xehetasunez informazio gehiago aurkitu dezakezu: www.irekia.euskadi.eus webgunean.

Bestalde, enpresa txikiek, ertainek eta autonomoek ordaindu beharreko kuotak zein horiek Gizarte Segurantzari zor dizkieten kotizazioen ordainketak ekainaren 30era atzeratu ditu Espainiako Gobernuak. Horiez gain, beste hainbat neurri ere onartu zituzten bertan; besteak beste, sariak onartu dituzte lana osorik edo zati bat galdu duten etxeko langileentzat eta alokairua edo hipoteka ordaintzeko arazoak dituzten herritarrek laguntza jaso ahal izango dute. Lehen etxebizitzaren kasuez gain, bankuek ezingo diete kobratu lokal eta bulegoen gaineko hipotekarik jarduera etenda edo sarrerak murriztuta dauzkaten autonomoei, alarma egoera amaitutzat ematen den hilabeteko azken egunera arte. Ordaindu gabeko alokairuak dituzten etxejabeek ere, pertsona fisikoak badira, eska dezakete atzerapen hori hipotekentzat.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak emango dituen laguntza horien inguruko informazioa emateko eta tramitazioarekin laguntzeko zerbitzua eskaintzen hasi dira Eibarko Merkataritzaren Bulego Teknikoan. Interesatuak posta elektronikoa idatzi dezakete leire.ojanguren@fmg.es edo empleo@fmg.es helbideetara, eurekin kontaktuan ipintzeko telefonoa ahaztu barik, eta deituko diete bulegotik.

SOFIA MACHIN / NURIA ROBLEÑO, ROYO MODA PROIEKTUA:

“Covid-19ak beste modu batera lan egiteko aukera eman digu”

– Nola bururatu zaizue horrelako ekimena mar-txan jartzea?

Gure iritziz, gazteak izatea ez da desabantaila, abantaila baizik; izan ere, denbora asko daukagu aurretik: akatsak egiteko, horietatik ikasteko, erre-akzionatzeko eta gauzak ondo egiteko. Enpresa bat sortzea probatzea eta hanka sartzea da. Bestalde, esan beharra dugu beti izan garela oso per-sona ekintzaileak, eta honen aurretik beste proiekturen bat izan dugula eskuartean. Elkarre-kin zerbait egiteak, beraz, beti motibatu izan gaitu. Oraingoan, urrats handi bat eman dugu proiektu handi bat sortze aldera, eta horren aldeko inber-tzio handia egin dugu.

– Zein eragozpen aurkitu dituzue bidean? Erraztasunak ere edukiko zenituzten, gazteak izateagatik, ez?

Gazteak gara eta ideia asko eta sortzaileak ditugu, baina, izan dugun zailtasun handiena diruarena izan da: 20-21 urterekin ez da ohikoa bankuan diru asko izatea, eta produktu berri bat sortzeko inber-tzio handia egin behar da. Are gehiago produktu jasagarria bada. Gure kasuan, produktua zapatilak dira, eta hasita geundenean jakin dugu manu-faktura-produkturik zailenetakoa dela. Dagoeneko produkzioaren erdia ordainduta daukagu, baina gainontzekoari aurre egin ahal izateko, *crowfunding*-a antolatu dugu. Bestalde, beste zailtasune-tako bat material jasagarriak topatzea izan da; bai zapatilak egiteko, bai *packaging*-erako (pake-tatzea). Fabrika aurkitzea ere ez da erraza izan; izan ere, gure ideiekin, diseinuarekin eta kon-tzientzia jasagarriarekin bat egiten duen lantegi baten atzetik ibili gara; eta lortu dugu, gure fabrika eguzki-energiar hornitzen baita.

Erraztasunei dagokienez, lan egiteko toki bat iza-tea aipatuko genuke: Eibarko Coworking-ean bil-tzen gara lanerako, eta guretzat ezinbestekoa da lantoki bat izatea ondo lan egiteko, kontzentra-tzeko, aurrera egiteko... Horretaz aparte, badaude gazteontzako dirulaguntzak, eta horiek lortzen saiatzen ari gara. Ezin aipatu gabe utzi gertukoengandik jaso dugun babesa, baita Eibarko hainbat dendariren aldetik izaten ari garen laguntza. Ez ge-nuen espero alboan hainbeste jende izatea.

– Enpresa bat sortu berri duzue. Nola eragiten dizue egungo egoerak (konfinatuta, enpresa guztiak geld...) abiatze fase honetan?



Enpresa bat seme-alabak bezalakoa da, hau da, egunero zaindu behar den zerbait. Guk egunero egiten dugu lan, bakarka zein biok batera, eta mo-mentu oro dakigu zein den gure betebeharra fin-katutako helburuak bete daitezten. Oraintsu egin dugu lehen eskaria fabrikara, baina, denoi bezala, guri ere, Covid-19ak eragin egin digu. Esaterako, fabrikak atek itxi ditu apirilaren 14ra arte, eta ez dakigu behar diren materialak garaiz iritsiko ote diren. Momentuz, ezjakintasuna da nagusi, hala ere, etxean gaudela aprobetxatuz, gure markaren, ROYOren, inguruko nondik norakoak jakinarazten ari gara sare sozialen bitartez: zer den ROYO, zer dagoen atzetik, ematen ari garen urratsak... Gai-nera, dirua biltzen jarraitzen dugu *crowdfunding*-aren bitartez saltzen ari garen produktuekin, hau da, boltsekin eta kamisetekin.

– Egoera ikusita, aldetaren bat egin behar izan duzue, edo helburuak arrekusitako mar-txan beteko dira?

Esan bezala, Covid-19ak bestela egin ezingo ge-nituzkeen gauzak egiteko aukera eman digu: web orria sortu, testuak, irudien gaineko antolaketa... Hortaz, denbora aprobetxatzen ari gara. Nolanahi ere, gure etorkizuneko funtsezko planek bere ho-rretan dira, betiere, fabrikaren mende gaudela jakinda. Guk buru-belarri lanean jarraituko dugu, eta espero dugu koronabirusaren kontuak aurrei-kusitako planei gehiegi ez eragitea. Badakigu fa-brikazio-prozesua luzea dela, baina gero eta gutxiago geratzen da, hilabete batzuk besterik ez, eta gure aldetik, behintzat, dena emango dugu.

Zaldibar Argituk EKIMEN BATERATUA

deitu du ASTELEHENERAKO EH osoan

Eitzagako hondakindegiko ezbeharrak gertatu zenetik bi hilabete beteko dira apirilaren 6an. Hori dela eta, astelehenean, Zaldibar Argitu plataformak ekimen bateratu bat egiteko deia egin du Euskal Herriko herri guztietan: 20:30ean herritar guztiak Euskal Herriko leihotara irten eta 5 minutuko burrunbada egitera eta, jarraian, kandela bi (edo bestelako argiak) piztera deitu dituzte.

Plataformatik adierazi dutenez, *“bi hilabete igaro dira Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran zabor azpian desagertuta daudenetik. Bi hilabete, gure osasuna arriskuan jarri zutenetik. Bi hilabete, erantzule zuzenak egon arren, erantzukizunak inork bere gain hartu ez dituenetik. Dagoeneko ez dakigu nola esan. Nahikoa dela. Aski dela. Honekin bukatu behar dutela. Langileak aurkitu behar dituztela, horretarako bitarteko guztiak jarriz. Zabortegian zer dagoen aztertu eta jakinarazi behar dituztela. Zabortegian gertatu zenaren inguruko argipenak eta azalpenak zor dizkigutela. Egun zaborte-gian lanean dauden langileen segurtasuna bermatu behar dutela. Erantzukizunak argitu behar dituztela eta Iñaki Arriolak dimititu behar duela. Hondakinen kudeaketa eredia aldatu behar dutela. Bi hilabete, plataformaren aldarrikapen bakar bat ez dute bete. Berriz diogu, nahikoa da, aski da, honekin bukatu behar dute!”*



Horrekin batera, konfinamenduak irauten duen bitartean, jendea bere aldarrikapenak eta argazkiak sare sozialen bitartez partekatzera animatu nahi dute.



Horretarako #zaldibarargitu eta #joaquinetaalbertogogoan traolak erabiltzeko eskatu dute eta, nahiago izanez gero, email ez bidaltzeko aukera dago, zaldibarargitu@gmail.com helbidera.

ZALDIBAR ARGITU

Alberto eta Joaquin
Osasuna Erantzukizunak

Apirilaren 6an BI HILABETE!

BURRUNBADA

20:30ean

5 min

Euskal Herriko leihoetan



*Ondoren piztu bi kandela
edo bestelako bi argi*



**Egin zure aldarrikapena eta igo argazkia
sare sozialetara**

#zaldibarargitu #joaquinetaalbertogogoan
zaldibarargitu@gmail.com

MARCAN HUELLA, TXAKUR BABESLEAK:

“Txakurren adopzioak etetea erabaki dugu iruzurrak ekiditeko”

– Konfinamendu sasoiaren txakurrak hartzeko edo adoptatzeko eskaera gehiago jaso dituzue?

Azken aldian nahiko sasoi lasaia bizi izan dugu galdutako edo utzitako txakurrekiko, eta konfinamendu sasoiaren ez dugu aldaketarik somatu, lehendik ere txakurrak harrera-etxeetan zeudelako. Hala ere, esan digutenez txakurrak babesten dituen inguruko elkarte batek eskaera gehiago izan ditu konfinamenduaren ondorioz. Euskal Herrian ez, baina hemendik kanpo badago txakur guztiak harreran eman dituen elkarteren bat, alarma egoera amaitezakoan itzuli egingo ditzutela jakinda ere. Gu ez gaude ados jokabide horrekin. Txakurren erabilera egiten da eta guk horren aurka borrokatzen dugu hain zuzen ere.

– Normalean nola jarduten duzue?

Guk berez ez dugu aterpetxerik, harrera-etxeekin eta azpikontrataturako txakur-erresidentziekin egiten dugu lan. Galduta edo utzita dagoen animalia baten berri izaten dugunean, gure boluntario taldea (ez gara gehiegi eta esker onez hartuko genuke jendea) martxan jartzen da eta animalia erreskatatzen du. Orduan, animalia harrera-etxe batera bidaltzen saiatzen gara beti, kaiola batean sartzeko ekiditeko. Hala ere, ez bada posible, txakur-erresidentzia batera eraman behar izaten dugu.

– Harrera-etxeak aldi baterako edo behin betiko izaten dira?

Gauza biak izan daitezke. Normalean, animalia bat hartzen duzunean, gero adopzioan ematen duzu. Hala ere, aldi baterako kontua izaten dena behin betiko kontua bihurtzen da batzuetan, familiaren eta animalia artean harreman berezia sortzen delako.

– Alarma egoerak nolako eragina izan du zuen jardunean?

Txakurren adopzioak etetea erabaki dugu iruzurrak ekiditeko. Ez da kasua, baina alarma egoera ezarri aurretik, orain dela hilabete batzuk agertu zen txakurkume baten adopzioa martxan genuen (familiara oso ondo egokitu zen eta dena oso ondo zihoan), eta alarma egoeratik adopzio-prozesua eten behar izan dugu. Beraz, txakurren bat adoptatu nahi duen norbait badago, itxaron egin beharko du. Txakur bat adopzioan emateko familia ezagutu behar dugu, txakurra non biziko den ikusi, adoptatu aurretik txakurrak denboraldi bat pasatzen du etxe horretan eta, alde biak ondo moldatzen badira, orduan adoptatu daiteke txakurra. Bestetik, alarma egoerak Marcan Huellaren



hainbat egitasmo zapuztu ditu. Bazkideen ekarpenei eta antolatzen ditugun ekimenei esker lortzen dugu finantzazioa, eta, urtero bezala, maiatzaren 22an ongintzazko gala egin behar genuen Coliseoan, baina bertan behera utzi behar izan dugu. Gero, urtean bi martxa egiten ditugu (udazkenean eta udaberrian), Marcan Huellaren produktuak saltzeko mahaiak jartzen ditugu... eta egoera honetan ez dakigu gauza hauek egin ahal izango ditugun edo ez.

– Txakurrak erreskatatzen jarraitzen duzue?

Arriskuan dauden animaliak erreskatatzeko baimena eman du Gobernuak. Beraz, Marcan Huella arriskuan dauden animalien bila joan daiteke alarma egoera egon arren. Joan den astean galduta zegoen setter baten kasua izan genuen Ermuan. Boluntario batek etxera eraman zuen, baina txakurraren jabeak agertu ziren eta entregatu egin genien. Bestetik, harreran dauden txakurrak behar bezala daude. Txakurrek txipa dute eta txakurren kartilla Marcan Huellaren ize-nean dago. Familiek kontratua sinatzen dute eta txakurrekin kalera irteteko aukera izaten dute arazo barik

– Nola moldatzen zarete aterpetxerik gabe?

Orain dela hilabete batzuk geratu ginen aterpetxerik gabe eta asko ari zaigu kostatzen hemen inguruan zerbait txukuna aurkitzea. Aterpetxe barik, txakurren hoteletara jo dugu. Txakurrak oso ondo daude hoteletan, baina aterpetxe bat aurkitu behar dugu. Momentu batean txakur gutxi eduki ditzakegu, baina bat-batean bost txakurkume batera etorri daitezke, eta zer egingo dugu guk bost txakurrekin? Aterpetxea beharrezkoa dugu.

Ego Ibarako fitxak

Eibarko eraikin industrialak webgune batean batu ditu Ego Ibarak

Eibarko eraikin industrialen katalogazioa eta azterketa egiteko lanean aritu da Ego Ibarra batzordea azken lau urteotan. Azterketa horretarako informazioa eta materiala bildu eta, hori guztia ondo aztertu eta landu ondoren, proiektua guztiz biribiltzeko, ikerketa lan sakon horren emaitza ezagutzera ematea baino ez da falta. Asmo horrekin, Ego Ibarren webgunearen magalean jarriko duten datu-base batean antolatu dute bildutako material guztia. Ego Ibarak dagoeneko prest dauzka datu-basea eta plataforma, *“ahalik eta azkarren eibartar guztien esku ipintzeko”*.

Bi oinarri izango ditu webgune berriak. Batetik, **eraikin industrialen fitxak** (eraikinen deskribapenak, informazio historikoa, planoak, argazkiak, artxiboko dokumentuak, fitxa teknikoa, kokapena...). Izan ere, batzordetik azaldu duten moduan, *“Eibarko eraikin industrialen inguruko informazio sakon eta aberatsa lortu dugu lan honetan eta laster eduki guztia herritarren esku jarriko da, webgune berrian”*. Eta, bestetik, **mapa historikoak**: *“Sasoi ezberdinetako lau mapa historiko eskaneatu ditugu, lau hamarkada ezberdinetakoak (1890, 1920, 1930 eta 1950), eta herritarrek mapa horietan barrena nabigatzeko aukera izango dute, garai bateko kale eta eraikinak non zeuden jakiteko, eta gaur egungo kokapena zein izango litzatekeen ezagutzeko”*.

Aipatutako guztiarekin batera, webguneari esker beste hainbat gauza erakusteko aukera izango dute: *“Besteak beste, argazki-funtsetako irudiak edota Eibartarren Ahotan proiekturako jasotako elkarrizketen lekukotasunak, bideo formatuan”*.



Aguirre y Aranzabal (AYA) -> Portalea
ERREKATXU - BISTA EDER



Leonardo Azpiri
CENTRO BAJO



Fundiciones Aurrera
CENTRO BAJO

JAIK OSPATZEKO

MODU BERRIAK ASMATZEN

Egoerarik zailenetan ere etorkizunari beti optimismoz begiratu behar zaiola diote adituek eta, Jaixak Herrixak Herrixandakok behintzat, aholkuari jarraitzeko erabakia hartu du: egoerak derrigortuta, San Juan jaiak antolatzeko barixakuero egiten zituzten bilera irekiak bertan behera geratu diren arren, *“San Juan jai, feminista, euskaldun, partehartzaille eta herrikoiak antolatzen”* lanean jarraitzen dutela gogorarazi nahi diete eibartarrei: *“Gure jaiak herri-tik eta herriarentzat egiten ditugu eta, auzolanik eta parte hartzerik ez badago, ez da posible”*. Horregatik, proposamenen bat egin nahi duenak, edo egitaraua osatzen laguntzeko prest egonez gero, sare sozialen bitartez, eurekin kontaktuan ipintzera animatu nahi dituzte eibartar guztiak.

Herrixak Herrixandako Eguna

Konfinamendu egoera honetan bere ekarpena egin nahi dute Jaixak Herrixak Herrixandako tal-

dekoek eta, horretarako, eibartar guztientzat gonbidapen bereziarekin datozkigu: *“Erronka bat jarri diogu gure buruari: elkar zaintzan oinarrিতa, aisialdirako proposamen bat egitea”*. Eta, horren harira, ‘Herrixak Herrixandako Eguna’ antolatu dute biharko, egun osorako egitarauarekin: 13:00ean brindis musikatuarekin hasi eta, afaltzeko ordua ailegatu arte, era guztietako ekitaldiak egingo dira.

Antolatzaileek *“leihotik, balkoitik eta sare sozialetatik”* parte hartzera animatu nahi dituzte eibartar guztiak: *“Leiho eta balkoietara irten eta, auzokideekin batera, abestu, dantzatu eta berba egitera deitu nahi ditugu eibartar guztiak”*. Horrekin batera, sormenerako dauden espresio ezberdinekin etxe barruan gozatzeko gonbidapena egin dute. Euren berbetan, *“bakoitza bere etxetik, baina denok elkarrekin. Egoera honi herri gisa erantzun behar diogulako”*.



Herrixak Herrixandako Eguna

APIRILAK 4, ZAPATUA

13:00 - Irekiera eta Brindis musikatua

13:30 - Tribiala: Jaixaken inguruko lehiaketa

14:30 - Bertso bazkaria

16:00 - "Ume" Sortzaileen Txokoa

17:00 - Merendola

18:30 - Poteo Musikatua

20:00 - Txaloak!

20:15 - Eibarko Gazte Musikariak + SORPRESA!

22:00 - Afari Autogestionatua

Hazastarrak
Marina Ereña
Julen Leturiondo
Ainhoa Arroitauregi
Miren Zulaika

Leihotik eta saretik, baina denok elkarrekin!

KONFINAMENDU SASOIKO

marrazki erakusketa digitala

antolatu du Udalak

Eibarko Udalak marrazki erakusketa digitala antolatu du koronabirusaren ondorioz etxean geratzeko derrigorrezko agindua betetzen ari diren adin txiki-koentzat. 'Covid-19a, etxeko konfinamendua' da erakusketaren gaia eta konfinamenduak irauten duten bitartean egongo da martxan. Marrazkiak .png, .jpg edo .tiff formatuetan haurreria@gmail.com helbidera bidali ahal izango dira, eta Udalaren Kultura sailaren webgunean argitaratuko dira. Marrazkiaren goiko aldean egilearen izena (soilik izena) eta adina jarri beharko da.



Eguen Zuri argazki lehiaketako


erakusketa Facebook-en

Arrate Kultur Elkarteak urtero antolatzen duen Eguen Zuri argazki lehiaketaren ohiko martxa eten behar izan dute, COVID-19ak sortu duen egoerak hala behartuta. Oraingoz irabazleei saria emateko ekitaldirik ezingo da egin, baina aurtengo hiru saridunak aukeratu ditu epaimahaiak: lehen saria Jose Luis Irigoienek eraman du, "Eskuak" lanarekin; bigarrena, berriz, Pedro San Romanek, "Momotxorros" lanarekin; eta hirugarrena Fernando Retolaza Loidik, "Txanogorritxu festara" izenburukoaren. Aurtengo lehiaketarako 12 egileren 33 lan jaso dituzte.




DEBABARRENEKO DATUAK

Eibarren, Elgoibarren, Ermuan eta Deban Covid-19ak izan duen eboluzioa



Eskualde osoko kurbak, herriz herri



Mutrikun, Mendaron eta Soraluzen koronabirus kasu gutxi zenbatu dira, eta Mallabia da gaixorik ez duen eskualdeko herri bakarra. Azken txostenaren arabera (gaur eguerdian kaleratu dena), hauek dira herrietako datuak:

Eibar	64
Elgoibar	27
Ermua	24
Deba	9
Mendaro	2
Mutriku	6
Soraluze	4
Mallabia	0

Egunero bezala, Osasun Sailak gaur eguerdian eman ditu koronabirusaren gaineko datu zehatzak herriz herri. Atzoko (apirilak 2) 20:00ak arte kontatutako kasuak dira, denera. Kontuan hartu behar da datu horiek orain arte eman diren koronabirus datu konfirmatuen metaketa dela, litekeena da horietako batzuek jada senda-agiria jaso izana.

Atzoko datuen arabera, Eibarren **10 positibo gehiago daude**, eta beste herrietan berean jarraitzen du gaixoen kopuruak.

Eibarko Ospitalean Covid-19 birusagatik ingresatutakoen kopurua **45** pertsonakoa da, eta **Mendaroko Ospitalean** **29** gaixo daude. Horietatik inor ere ez dago zaintza bereziko getetan.

#etxeanEtaKitto, koarentena EGUNAK ARINTZEKO hamaika proposamen

COVID-19ak eragin duen ezohiko egoera honi buelta lehenbailehen eman ahal izateko ezinbestekoa da koronabirusaren hedapena saihestea eta, hori lortzeko neurririk eraginkorrena herritarrak etxean geratzea da. Kalera irten barik geratzeko errepikatu eta errepikatu ari dira egunero. Isolamenduan egoteak, baina, ez du esan nahi isolatuta gaudenik, ez horixe! Internetek eta sare sozialek eskaintzen dituzten aukerei inoiz baino etekin handiagoa ateratzen ari gara konfinamendua ezarri zenetik eta, paradoxikoki, gure arteko komunikazioak ere hobera egin duela uste du batek baino gehiagok. Inoren gustokoa ez den koarentena arintzeko asmoz, sare sozialetan hamaika proposamen daude eta, egunetik egunera gero eta gehiago dira elkarte, erakunde eta herritarren eskutik sortzen doazen ekimenak eta, jakina, eibartar asko ere animatu dira gure isolamendua arindu eta alaitzeko euren ekarpena egitera.



Denen berri ematea zaila egingo zaigu, baina, hala ere, gu ahaleginduko gara horrelako ekimenak biltzen eta zuekin partekatzen, etakitto.eus web orrian sortu dugun #etxeanEtaKitto azpiatalaren bitartez. Lan horretan lagundu nahi baduzue, elkarte.etakitto@gmail helbidera idatzi dezakezue zuek ezagutzen dituzuen ekimenen berri emateko, zuenak gurekin partekatzeko, bideo edo argazkiak bidaltzeko, animo mezuak herritarren artean zabaltzeko...



MARTA GUENAGA GOMEZ

2010-IV-4

“10 URTE MARTA GABE”

ETXEKOAK



5					9			
		4	1		7		8	
		9		8				
6				7	3			1
1	2						7	6
8			2	6				5
				9		3		
	5		3		8	7		
			6					4

EMAITZA

7	3	8	6	1	2	9	5	4
9	5	9	3	4	8	7	1	2
4	1	2	7	9	5	3	6	8
8	9	7	2	6	1	4	3	5
1	2	3	9	5	4	8	7	6
6	4	5	8	7	3	2	9	1
3	6	4	1	2	7	5	8	9
5	8	1	4	3	9	6	2	7

7				4		3		8
		6	3				5	
				9				1
			8		9		3	
	7			2			8	
	9		5		7			
9				7				
	6				4	1		
5		2		3				6

EMAITZA

5	4	2	9	3	1	8	7	6
8	6	7	2	5	4	1	9	3
9	3	1	6	7	8	5	4	2
3	9	8	5	6	7	2	1	4
1	7	5	4	2	3	9	8	6
6	2	4	8	1	9	7	3	5
2	8	3	7	9	5	4	6	1
4	1	6	3	8	2	7	5	9
7	5	9	1	4	6	3	2	8

SUDOKUZ

SUDOKU

	7			2		8	9	
				4		7		
	3			7	1	6		
	4			7				3
			2		6			
2				8			1	
	9	4	5				3	
		5		2				
8	2		4					9

EMAITZA

8	2	6	4	3	1	5	9	7
3	1	5	7	2	9	8	4	6
7	9	4	5	6	8	2	3	1
2	6	7	1	8	4	9	1	5
9	5	3	2	1	6	4	7	8
1	4	8	9	7	5	6	2	3
5	3	2	8	9	7	1	6	4
6	8	9	1	4	3	7	5	2
4	7	1	6	5	2	3	8	9

6		5						1
	4			2	6			
3	9			4	5			
						8		
5		6	8		9	3		2
		9						
			6	2			8	5
				7	1		2	
2						1		4

EMAITZA

2	5	7	3	9	8	1	6	4
8	6	4	5	7	1	9	2	3
9	1	3	6	2	4	7	8	5
1	8	9	4	3	2	6	5	7
5	7	6	8	1	9	3	4	2
4	3	2	7	5	6	8	1	9
3	9	8	1	4	5	2	7	6
7	4	1	2	6	3	5	9	8
6	2	5	9	8	7	4	3	1



#nireetxekoLeihotik